2k. Araudiaren zuzentzaileak (Azkue, Eleizalde ta Olabide) Bilbo'n, uřilaren 19'an, bildu-ta, eskaturikako egikizunak bete zituzten.

3k. Bi batzař orietako beři ta erabakiak, idazkizaiñaren eskuz, izpařingi edo egunkarietan jařiak izan ziran.

---

## IRU TA LAU-GAŘEN BATZAŘALDEAK

(Donostia'n, Gipuzkoako Aldundiaren jauregian, uřilaren 26'an).

ALKIETAN ZEUDEN: Azkue, buru; Agiře, Broussain, Campion, Eguzkitza, Eleizalde, Intzagaray, Landerreche, Lhande, Olabide, Urquijo.

1. AZKUE'k Landerreche'ri ongi-etořizko aguřak eman ondorean, onek, Lapurdi'ko euskera garbiz, Euskaltzaindia'ri eskeřak biuřtu zizkion.

2. AZKUE'k ezagutarazi zuan Bizkai'ko Aldundi-Buru jaunak eta Bilbo'ko Auzapaiz edo Udalburu jaunak oneritxi zutela Euskaltzaindia'ren egoitza Bilbon izateko asmoa, ta ortarako laguntza osoa eskaiñi ziotela.

3. Aita Leza, Jesusen Lagundi'ko Buruordekoa'k, Euskaltzaindia'k Aita Olabide'rentzat asti geiago eskatu zion eskutitzari emandako asmo onezko erantzupena irakuři zan. Ta Euskaltzaindia'k bere idazlariari agindu zion bere izenean eskeřak Aita Leza'ri biuřtu zeizkiola.

4. *Eusko-Ikaskuntza*'k eskeñi ziozkan euskal Abizen ta Tokizeneko agerkaiak *(Documentos de Patronimia y Toponimia vascas)* Euskaltzaindia'k eskuratu zituan.

5. Euskaltzaiñ deduzkotzat *(Académicos de honor):* Patricio de Orcaiztegui Tolosa'koa, Hugo Schuchardt Gratz'koa, Julien Vinson Paris'koa ta C. C. Uhlenbeek Leide'koa autatuak izan ziran.

6. Euskaltzaiñ uŕgazletzat (Académicos correspondientes) emen dakaŕzkigun euskaltzaleak izendatu ziran:

*Bizkaia'n:* Severo de Altube, Geŕnikakoa.
» Federico Belausteguigoitia, Durangokoa.
» Evaristo Bustintza, Bilbokoa,
» José María Errazti, Bilbokoa.
» Luis González Echabarri, Bilbokoa.
» Juan Cruz Ibarguchi, Eibaŕkoa.
» Gabriel de Manterola, Eibaŕkoa.
» Nazario Oleaga, Bilbokoa.
» Amancio Urriolabeitia, Zoŕnotzakoa.
» Pablo Zamarripa, Gatikakoa.

*Gipuzkoa'n:* Toribio Altzaga, Donostiakoa.
» R. P. Pedro de Lardizabal, S. J., Segurakoa.
» Juan Bautista Larreta, Sorabiĺakoa.
» Manuel Lekuona, Oyaŕzungoa.
» Isaac López Mendizabal, Tolosakoa.
» Gregorio Mujica, Ondaŕabikoa.
» Pedro María Urruzuno, Mendarokoa.
» José Zinkunegi, Eŕenterikoa.

*Napaŕoa'n:* Teodoro Arburua, Etxalaŕkoa.
» R. P. Celestino de Caparroso, Tudelakoa.
» R. P. Eusebio de Etxalar, Lekarozkoa.
» Fermín Irigarai, Iruñakoa.
» R. P. Nicolás Ormaechea, Jabieŕkoa.

*Araba'n:* Odón Apraiz, Gazteizkoa.

*Lapuŕdi'n:* Blaise Adema, Baionakoa.
» Jn. Bte. Daranatz, Baionakoa.
» Pierre Dourisboure, Semperekoa.
» Jean Saint-Pierre, Baionakoa.

*Benabaŕe'n:* Jean Etchepare, Aldudekoa.
» Julien Heguy, Bezkoitzekoa.
» Georges Lacombe, Baionakoa.
» Fréderic de St. Jayme, Donapaleokoa.

*Zubero'n:* J. Bte. Constantin, Ataŕatzekoa.
» Félix Larrieu, Maulekoa.
» Justin de Menditte, Mendikotakoa.
» J. Urruztoy, Baŕkoxekoa.

*An-emen:* J. B. Darricarrère, Baionakoa.
» H. Gavel, Baionakoa.
» R. Menéndez Pidal, Madridkoa.
» J. Saroïhandy, Pariskoa.

7. Bilbo'n uŕilaren 19'an Araudia'ren Batzordeak zuzendutako *Euskaltzaindia'ren Araudi estarizko gaia* gero irakuŕi zan, ta mai-gañean utzi zuten, kideak eskuratu ta begira zezaketen.

8. Euskaleŕiko Udal *(Ayuntamientos)* guzieri Euskaltzaindia'ren jaŕkunde ta laguntzazko eskeak jakiñeraztea azkenik erabaki zan.

---

*Oaŕak:*

1. Batzaŕ orien auŕetik, kide guziak Santa Maria'ko eleizan alkaŕganatu ziran Gogo Santua'ren meza entzuteko, Zuaznabaŕ Donostia'ko udalburu eta Gipuzkoa'ko Aldundiak ortarako bidali zuan Batzorde'ko jaun batzuk berekiñ zeuzkatela.

2. Bilbo'ko Udalak ta Bizkaiko Aldundiak Euskaltzaindia'ri bizitokitzat eskaiñi ziozkaten etxeak Azkue ta Eleizalde'k ikusi ta ikeŕtu dituzte. Iri artan eraikitera dijoazen *Bilkindegi* beŕiko etxean Euskaltzaindia'rentzat berezitako gela gaiak begietsi ta oneritxi zituzten.

3. Euskaltzaindi ta Eusko-Ikaskuntzaren idazlariak Urgazleeri erderaz, (euskerazko idazkera oraindik erabaki etzalako), beren izendatzearen beŕiak gaztigatu zizkioten.

Gaztelerazkoak onela zion:

San Sebastián, 27 de Octubre de 1919.

Muy señor mío: La Academia de la Lengua Vasca, en su sesión celebrada el día de hoy, ha nombrado á usted, por unanimidad, académico correspondiente, con derecho á asistir, con voz pero sin voto, á las asambleas ordinarias de esta Corporación.

Confiamos en que por el amor que profesa usted al idioma, se servirá usted aceptar el cargo que se le confiere é ilustrar á la Corporación con sus reconocidas luces. Esperamos que en el plazo de quince dias, á partir de la fecha de la presente, tenga usted la bondad de comunicar á cualquiera de los dos firmantes, su aceptación.'

En tanto, quedamos de usted atentos y seguros servidores que le estrechan la mano,

El Directer de la Academia, Resurrección María de Azkue.

El Secretario de la Academia, Luis de Eleizalde.

Idazki au erderaz bidaltzen zaitzu, Batzaŕ aunek ez dualako oraindaño yaŕaituko duan idazkerarik erabaki. Baŕkatu, aŕen.

Las respuestas al Director (Campo Volantín, 15, 3.°, Bilbao) ó al Secretario (Chalet Gainzuri, Iralabaŕi, Bilbao).

Prantzerazkoan argitasun batzuk ipiñi ziran, Lapuŕdi, Benebaŕe ta Zubero'ko Euskaldunak emengo beŕi gütxi dakizkitelako. Derasa:

Saint-Sébastien, Palais de la Députation de Guipuzcoa
26 Octobre 1919.

Monsieur et cher compatriote:

L'Académie de la Langue basque, dans la session qu'elle a tenue aujourd'hui au Palais de la Députation de Guipuzcoa, a décidé à l'unanimité de vous nommer *membre correspondant*. Ce titre vous octroie la faculté d'assister aux assemblées ordinaires de l'Académie avec voix consultative, à l'exclusion cependant, du droit de vote et de l'indemnité de déplacement.

L'Académie est constituée suivant le vœu adopté à l'unanimité par le Congrès d'Oñate en Septembre 1918 en présence des délégués de tout le pays basque. Le Labourd, la Basse-Navarre et la Soule y étaient représentés par ses députés au Parlement et ses délégués, groupés autour de S. G. Mgr. Gieure.

L'Académie est établie sous le patronage officiel et avec l'appui financier des 4 Députations d'Alava, Biscaye, Guipuzcoa et Navarre et de nombreuses municipalités de ces 4 Provinces. L'Académie comprend 1°) 12 membres titulaires, tous Basques, répartis en 2 sections: la section philologique et la section de propagande.—2°) 4 membres honoraires et 4 membres correspondants étrangers.—3°) 30 membres correspondants basques dont 12 pour la Basse-Navarre, le Labourd et la Soule, chargés de seconder l'Académie dans ses recherches et ses travaux.

L'Académie se propose: 1°) de fixer l'orthographe euskariènne.—2°) d'expurger et de compléter le vocabulaire de la langue dans tous les dialectes en substituant aux termes étrangers les vieux mots basques tombés en désuétude et en élaborant les néologismes destinés à exprimer les concepts

modernes.—3°) de travailler á constituer un *eskuara* littéraire qui servirait de trait d'union aux Basques de toutes les Provinces, sans se substituer, bien entendu, aux dialectes locaux.

Ce serait méconnaître l'esprit de l'Académie que de la considérer comme une sorte de Tribunal sans appel qui voudrait imposer à tous ses arrêts. Elle n'a d'autre but que de coordonner les efforts de tous pour le maintien et l'essor de notre vieille langue.

Nous espérons que votre attachement à notre langue vous inclinera à mettre vos lumières au service de notre Société.

Vous voudrez bien nous communiquer votre décision dans un délai de 15 jours à partir de la présente lettre.

Nous vous prions d'accepter, Monsieur et cher compatriote, l'assurance de nos sentiments les meilleurs.

Le Directeur de l'Académie,
Resurrección María de Azkue.

Le Secrétaire de l'Académie,
Luis de Eleizalde.

Envoyer les adhésions à Don Resurrección María de Azkue, 15, Campo de Volantín, Bilbao, ou Don Luis de Eleizalde, Chalet Gainzuri, Iralabarri, Bilbao.

Idazki edo letra hau igortzen dautzugu frantzesez, Biltzarra hunek ez dualakotz oraino erabiltzen egin gogo duen izkiria-moldea. Barkatu othoi.

---

## BOST ETA SEIGAŔEN BATZAŔALDEAK

(Donostia'n, Gipuzkoa'ko Aldundia'ren jauregian, Azaroaren 13'an)

ALKIETAN: Azkue, buruzagi; Agiŕe, Broussain, Campion, Eguzkitza, Intzagarai, Landerreche, Lhande, Olabide ta Urquijo.

### I.—GOIZ BATZAŔA (V'na)

1. Buruzagiak idazlari jauna (Eleizalde) Madriden dala darakus, beaŕ-beaŕezko aŕazoetara joana, ta Araudiko II gaŕen arauak emaniko eskubidez, Intzagarai euskaltzaiña idazlari-ordekotzat aukeratzen du.

2. Idazlari-ordekoak euskaltzain-uŕgazletzat izendatukoen erantzun baieztunak, geienak euskerazkoak, irakuŕi zituan:

*Bizkai*'tik: Nazario de Oleaga (Zeanuri, uŕilaren 31), Severo de Altube (Geŕnika, azilaren 2), J. C. Ibarguchi ta Gabriel de Manterola (Eibaŕ, az. 3). F. Belaustegigoitia (Bilbao, az. 4),